

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**186/2017 Foru Agindua, ekainaren 12koa, onartzen duena euskarazko komunikabideak eta IKTak sustatzeko 2017ko ekitaldirako dirulaguntza deialdi publikoa, irabazteko xederik gabeko erakunde eta elkarteentzako eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuentzako**

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatu du irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultura elkarte eta entitateei eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea, 2017ko ekitaldian, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian, euskara gizarteratze aldera, euskarazko komunikabideak eta IKTak sustatzeko programak egin ditzaten.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntza deialdi publikoa onartzea 2017ko ekitaldian irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultura elkarte eta/edo entitateek eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuek sustatutako euskarazko komunikabideak eta IKTak sustatzeko, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko konderrian euskara gizarteratzearen alde egindako lanarengatik. Deialdia gehienez ere 50.000 euroekin hornituta egongo da eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, arautuko du. Foru dekretu hori ALHAOren 123. zenbakian argitaratu zen, 2015eko urriaren 21ean.

Bigarrena. Gastu hori babesten duen aurrekontu partida Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70.1.07.78.00.479.00.01 partida da (xedapen erreferentzia: 105.2670).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, hau hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 12a

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**

## Eranskina

### **Irabazteko xederik gabeko erakunde eta elkarteetarako eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuentzako euskarazko komunikabideak eta ICTak sustatzeko 2017ko dirulaguntzen deialdia publikoa**

Oinarriak

#### **Lehenengoa. Xedea eta helburua**

Deialdiaren xedea lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea da, irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultura elkarte edo entitateek eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuek sustatutako euskarazko komunikabideak eta ICTak sustatzeko helburuz, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko konderrian 2017ko ekitaldian euskara gizarteratzearen alde egindako lanarengatik. Dirulaguntza horiek Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, xedatutakoaren arabera emango dira.

#### **Bigarrena. Aurrekontu egozpena**

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 50.000,00 euro. Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako aurrekontuko "euskarazko komunikabideak sustatzeko dirulaguntza" izeneko 70.1.07.78.00.479.00.01 partidaren konturakoa da zenbateko hori.

Esleitzeko dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu eranskin honen zazpigarren paragrafoan berariaz zehaztutako ehunekoak, eta inola ere ez du gaindituko 25.000 euro onuraduneko.

#### **Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak**

Erakunde onuradun izan ahalko dira gizarte eta kultura izaerako elkarte eta erakunde publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eraturakoak, eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuak, baldin eta haien jarduera deialdiaren helburuetara lotzen bada eta sozietatearen egoitza Araban edo Trebiñuko Konderrian badute.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak onartu zituenak, hirugarren klausulan aipatzen dituzenez gainera, honako hauek ezin dira onuradun izan:

- a) Kapitala gehienbat publikoa duten erakunde publiko nahiz pribatuak.
- b) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta horietan sartuta edo horiei eratzikita dauden talde eta elkarteak.
- c) Ganberak, elkargoak, sindikatuak edo, oro har, merkatari, teknikari, langile eta profesional elkarteak, guraso elkarteak eta horiei eratzikitako, horietan sartutako edo horietatik sortutako talde eta elkarteak.

#### **Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak**

Jardun eremua Arabako Lurralde Historikoa edo Trebiñuko konderria duten proiektuak edo eskualdeko programak. Euskara hutsean diharduten komunikabideak baino ez dira diruz lagunduko.

Diruz lagundutako proiektuaren garapenarekin zerikusi zuzena duten gastuak baino ez dira lagunduko, nola langile gastuak hala proiektuaren ekoizpenarekin, gauzatzearekin eta hedapenarekin zerikusia dutenak.

- a) Idatzizko komunikabideak direla eta, urtean gutxienez 15 ale argitaratu beharko dira, gutxienez din-A4 formatuko 16 orrialde dituztenak.

b) Irrati eta telebista bidezko komunikabideak direla eta, astean, gutxienez, 10 orduko ekoi-zpen propioa lagunduko da diruz. Ez dira kontuan hartuko ez musika tarteak ez dagoeneko emandako saioak berriro emateak. Ezinbestekoa izango da komunikabideak copy left (lizentzia libre) duen webgunea edukitzea.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari eta/edo justifikatzeari dagokienez, ondoko gastu hauek:

a) Erakunde eta eremu jakin bateko pertsonentzat argitaratutako barne komunikabideak: eskola aldizkariak, eskola irratiak edo antzekoak; ez dira diruz lagunduko, halaber, kultura buletinak, ikuskizun gidaliburuak, denborapasak edo antzekoak.

b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

c) Ordezkaritza, protokolo, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.

d) Inbertsio gastu direnak.

e) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, 18.000 euro baino gehiago bada hornitzaile bakar baten eskaintzari egotzi ahal zaion diruz laguntzeko moduko gastuaren zenbatekoa, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die gutxienez hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua emateko konpromisoa kontratatu baino lehenago, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, ez badago nahiko erakunde zerbitzu edo hornidura hori egiten duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskaera baino lehenago egin bada.

Entitate onuradunak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, betetzeko. Lege horri jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira erakutsi pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, saihestu egingo dira estereotipo sexistak eta roletan eta genero identitateetan sexu aniztasuna bultzatuko da.

### **Bosgarrena. Eskaeren aurkezpena**

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduta bidali beharko dira, I. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuta.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

A) Administrazio agiriak.

1. Eskaera, I. eranskinaren arabera.

2. Eskaera izenpetzen duenaren NANaren fotokopia.

3. Elkarte edo entitate onuradunaren ordezkartzan diharduela egiaztatzen duen agiria.

4. Entitatearen estatutuen eta eratze eskrituren fotokopia, eta legez eraturik dagoela eta elkarte edo entitateen erregistroan inskribaturik dagoela frogatzen duten agiriak. Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurretik aurkeztu zituzten erakundeek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, salbu eta harez geroztik aldaketaren bat egin badute.

5. Eskaera hau aurkeztu baino lehen ez bada entitatea identifikatzeko daturik aurkeztu, hari alta eman edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian jasota dauden datuak eguneratu ahal izateko, ondoko datu hauek aurkeztuko dira, baimena duen pertsonak sinatuta eta agiri bakar batean bilduta:

- Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa eta/edo posta elektronikoa.

- Banku kontuaren zenbakia, hoguei digituak eta IBAN adierazita, eta finantza entitatearen zigilua.

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia (IFZ).

B) Berariazko agiriak:

1. Proiektua, II. eranskinaren arabera.

a) Ekoizpena:

- 2016ko datuak, web digitalak izandako bisita kopuruarena (google analytics-en arabera).

- Argitaratutako ale kopurua eta programaren emanaldi orduak.

- Aleen edo emanaldien aldizkakotasuna.

b) Programaren gastu eta diru sarreren aurrekontu xehatua. Diru sarreren atalean zehaztu behar dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, entitatearen ekarpena, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, halakorik badago.

2. Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideei buruzko ziurtagiria: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

#### **Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### **Zazpigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta balorazio irizpideak**

1. Prozedura bideratzeko eskumena Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du.

2. Balorazio irizpideak.

Irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Finantzazio maila. Diruz lagundu daitekeen aurrekontutik norbere finantzazio maila. Gehienez, 10 puntu.

— Ehuneko 20 baino gutxiago	2 puntu
— Ehuneko 20 eta 30 bitartean	5 puntu
— Ehuneko 30 eta 40 bitartean	7 puntu
— Ehuneko 40 baino gehiago	10 puntu

b) Aurrekontuaren zenbatekoa. Gehienez, 40 puntu.

— 50.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua	0 puntu
— 50.000 eta 75.000 euro bitarteko aurrekontua	12 puntu
— 75.000 eta 120.000 euro bitarteko aurrekontua	5 puntu
— 120.000 euro baino gehiagoko aurrekontua	40 puntu

c) Giza baliabideak. Eskueran diren giza baliabideak. gehienez, 10 puntu.

— Kontratututako pertsonarik ez	0 puntu
— Kontratututako pertsona bat	3 puntu
— Kontratututako bi pertsona	6 puntu
— Kontratututako bi pertsona baino gehiago	10 puntu

## d) Ekoizpena. 20 puntu.

– Urtean web digitalak izandako bisita kopurua. Gehienez 10 puntu

— 40.000 bisita baino gutxiago	2 puntu
— 40.000 eta 70.000 bisita bitartean	5 puntu
— 70.000 bisita baino gehiago	10 puntu

– Urtean inprimatutako ale edo emanaldi ordu kopurua. Gehienez, 10 puntu

## Imprimaketa

— Urtean 50.000 ale baino gutxiago argitaratzea	0 puntu
— Urtean 50.001 eta 75.000 ale bitartean argitaratzea	5 puntu
— Urtean 75.001 ale baino gehiago argitaratzea	10 puntu

## Emanaldi ordu kopurua

— Urtean (astelehenetik ostiralera) 150 ordu baino gutxiago ematea	0 puntu
— Urtean (astelehenetik ostiralera) 151 eta 200 ordu bitartean ematea	5 puntu
— Urtean (astelehenetik ostiralera) 201 eta 250 ordu bitartean ematea	10 puntu

## e) Aldizkakotasuna. 20 puntu.

– Argitaraldiaren aldizkakotasuna edo egunean emandako ordu kopurua. Gehienez, 20 puntu

## Imprimaketa

— Hilean behin	0 puntu
— Hamabostean behin	10 puntu
— Astean behin	20 puntu

## Emanaldi ordu kopurua

— Astelehenetik ostiralera egunero hiru ordu baino gutxiago	0 puntu
— Astelehenetik ostiralera egunero 3 eta 5 ordu bitartean	10 puntu
— Astelehenetik ostiralera egunero bost ordu baino gehiago	20 puntu

Aurreko paragrafoan jasotako irizpideei dagozkien puntuak balorazio batzarrak sortutako haztapen taula batean bilduko dira. Taula ebazpen proposamenari erantsiko zaio. Ez dira kontuan hartuko 30 puntu edo gehiago lortzen ez duten eskaerak.

Dirulaguntzak banatzeko, puntuazioen arabera banaketa sistema bat erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa zati eskatzaile guztiek lortutako puntuen artean zatituko da. Horrela puntuaren balioa zein den jakingo dugu. Laguntzaren zenbatekoa ateratzeko, berriz, eragiketa hau egingo da: puntuaren balioa bider eskaera bakoitzaren puntu kopurua, betiere zenbateko horren eta gainerako diru sarreraren baturak ez badu gañditzen jardueraren kostua.

**Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Euskararen Foru Zerbitzua izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna.

2. Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek osatuko dute mahaikide gisa:

Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kiroletako Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena hartzeari begira ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako egitateak eta agiriak baino.

4. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita; horretarako, gehienez ere, lau hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesa duten erakundeek ulertu beharko dute eskaerari ezezkoa eman zaiola.

5. Dirulaguntzak emateko ebazpenean, dirulaguntza ematen zaien entitate onuradunak adierazi beharko dira, eta gainerako eskaerak espresuki ezesten direla.

6. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie onuradunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

7. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzailleei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

8. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

#### **Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea**

1. Ordainketa era honetan egingo da:

– Emandako dirulaguntzaren ehuneko 70, "justifikatu beharreko aurrerakin" gisa, ebazpena ematen den egunetik bertatik aurrera ordainduko da.

– Gainontzekoa ordainketa bakar batean ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendaturik, justifikatu ondoren, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" ren kenkaria eginda azken ordainketa horretan; gastu guztiak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2017ko abenduaren 29an amaituko da.

Lortutako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordainduko da dirulaguntza.

2018ko otsailaren 23ra arteko epean aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

Aurreko paragrafoetan aipatu diren aurkeztu beharreko agiri guztiek jatorrizkoak izan beharko dute, harik eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa berdindu edo gainditu arte. Gainerako agiriak fotokopia konpultsatuak izan ahal dira.

Diruz lagundutako gastuei zigilua ezarriko die Euskararen Foru Zerbitzuak, adieraziz zein den dirulaguntzak eragiten dion zenbateko zehatza, eta, ondoren, jatorrizko agirien kopiak konpultsatuko dira.

Dirulaguntzen justifikazioa egin beharko da Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, hamargarren klausulan ezarritakoaren arabera.

2. Memoria bat, justifikatzen duena dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta adierazten dituen burututako jarduerak eta lortutako emaitzak (III. eranskina).

Gainera, halakorik bada, ale bat aurkeztuko da azterlan, programa, argitalpen, iragarki kartel eta prestatutako dokumentazio idatzi edo grafiko guztiarena; horrek guztiak bat etorri behar du eskaeran aurkeztutako programarekin.

3. Gastuak frogatzeko, entitate onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, zeina arautzen baitute urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 28.1 eta 2 artikuluetan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehia bidezko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituenak, 10. artikuluan, eta, horretarako, nahitaez bete beharko dute IV. eranskina.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

a) Diru sarreren eta gastuen balantze exekutatua.

b) Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatu bat, adieraziz hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira jatorrizko fakturak edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako 1.000 euro gainditzen badute (BEZa aparte), eta horiek ordaindu izanaren frogagiriak.

Organo izapidetzaileak eskatu ahal izango dizkie onuradunei egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak, dirulaguntza bere xederako erabili dela behar bezala egiaztatuta ahal izateko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, PFEZeko (pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria, non, gutxienez, agertuko diren zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza guneetakoak, autobideetakoak, bidai txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2017rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, eta ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

4. BEZaren kuota jasanak diruz laguntzeko moduko gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitza duen lekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko dute, zeinetan entitateei onartzen baitzaie BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikuluan xedatzen den izaera soziala, arau horren beraren 20. Bat artikulua- ren 12. eta 14. paragrafoetan jasotako zerga salbuespena aplikatzeko.

5. Langile gastuak dituzten programetan, 3. puntuan zehaztutako agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Langile gastuen eta kostuen taula. Horretarako, langile horien soldata orriak eta Gizarte Segurantzaren TCak aurkeztuko dira, baldin eta zuzenean kontratatutako langileak badira, eta fakturak, berriz, baldin eta beste erakunde bati azpikontratututako zerbitzua bada.

#### **Hamargarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.

Entitate onuradunak, helburu bererako, beste dirulaguntza edo laguntzaren bat eskatu badio beste administrazio edo erakunde publiko bati, den estatukoa edo nazioartekoa, edo beste entitate edo erakunde pribatu bati, edo beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortu badu horrela, jakinarazi egin beharko dio dirulaguntza esleitu dion organoari.


#### **Hamaikagarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Era berean, eranskinak digitalki eskura daitezke [www.araba.eus](http://www.araba.eus) web orrian edo beste honetan: [www.euskaraba.eus](http://www.euskaraba.eus).

Euskararen Foru Zerbitzuak [www.euskaraba.eus](http://www.euskaraba.eus) web orrian argitaratu ahal izango du diruz lagundutako programa edo jarduera.



 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Euskarazko komunikabide eta IKTen diru-laguntza eskaera irabazi asmorik gabeko elkarte, pertsona fisiko, juridiko edo pribatuentzat.</b></p> <p><b>2017</b></p> <p>Solicitud de subvención de los medios de comunicación y las TIC en euskera para las asociaciones sin ánimo de lucro o personas físicas o jurídicas o privadas.</p>
	<p>Euskara, Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p> <p style="text-align: right;"><b>I ERANSKINA ■ ANEXO I</b></p>

Eskaera zk. ■ N° Solicitud      Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

**ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>**

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> IKZ CIF <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
<b>Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social</b> <input type="text"/>				<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>		
<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>				<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herrialdea ■ País</b> <input type="text"/>		<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>		<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>		<b>Herria ■ Localidad</b> <input type="text"/>		<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>		<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>		<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>		<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>		

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>**

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)


<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>				<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herrialdea ■ País</b> <input type="text"/>		<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>		<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>		<b>Herria ■ Localidad</b> <input type="text"/>		<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
<b>Izena ■ Nombre</b> <input type="text"/>			<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>		
<b>Protokolo zk. ■ N° protocolo</b> <input type="text"/>			<b>Data ■ Fecha</b> <input type="text"/>		<b>Notario ■ Notario</b> <input type="text"/>		
